



Nola erabili?

4. Instalatu “HARROBIX” sistema eragilea jatorrizko sistema eragilearekin batera (“dual booting”).

Horrela, zure ekipo informatikoan, bi sistema eragile izango dituzu eta abiaraztean, bata zein bestea erabil dezakezu. Horretarako, egin honako hauek:

- “HARROBIX” sistema eragilearen bertsioaren [**ISO fitxategia jaitsi**](#) eta USB abiarazle batean bihurtu. Horretarako, “Rufus”, “Yumi”, “UNetBootin” edo “Linux Mint” moduko GNU/LINUX sistema eragile gehienek duten “USB irudi-idazlea” aplikazioren bat erabil dezakezu.
- Jatorrizko sistema eragilean (adibidez, “Windows 10”) sortu disko-partizio bat (adibidez, 100 GB), “disko-administratzailea” erabilita; adibidez, “C:” unitatea murriztuz.
- Abiarazi zure ekipo informatikoa USB unitatetik (“BIOS”-ean abiarazte-ordena aldatu beharko duzu; horretarako, ordenagailua itzalita dagoela, USB abiarazlea sartu eta, piztean, abiarazte-menua (“boot menu”) agertzeko, hainbat segundotan zehar, sakatu > “F8” (edo “F9” edo “F10” edo “F11” edo “F12”) abiarazte-menua agertu arte, edo sakatu > “Supr” (edo “F2”) “BIOS”-ean sartzeko
 - “BIOS” > “BOOT” atalean, aldatu abiarazte-odena (“boot order”) > jarri lehenengo aukera gisa honako hau:
 - “UEFI: SMI USB DISK”

Zure ekipo informatikoa USB unitatetik abiaraztean, aukeratu honako hau:

- “Boot Live system” > “(initramfs) /cow format specified as ‘overlay’ and no support found” agertzean, sakatu > “Ctrl” “d”
- “Hasi saioa” leihoa > sartu “user”/“Userr” saioa
- “HARROBIX” sistema eragilearen bertsioa instalatzeko, sakatu > “Instalatu HARROBIX” abiarazlea > “user(r)en pasahitza:” > “Userr”



- “Ongi etorri” leihoa sakatu > “Euskara” > “Jarraitu”
- “Teklatuaren diseinua” leihoa, sakatu > “Spanish” > “Jarraitu”
- “Multimedia kodekak” leihoa, sakatu > “Jarraitu” > “ubi-prepare crashed” akatsa agertzean, sakatu > “Continue anyway”
- “Instalazio-mota” leihoa, sakatu > “Instalatu Systemback Live Windows 10(r)ekin batera” (uste izanez, jatorrizko sistema eragilea “Windows 10” dela) edo sortu honako hiru partizio hauek eskuz “leku librea” atalean “+” sakatuta:
 - “Efi Partition System” > 200 MB
 - “swap” > 2000 MB
 - “ext4”, Muntatze-puntuak: “/” > beste guztia *
- “Non zaude” leihoa > “Madrid” > “Jarraitu”
- “Nor zara” leihoa > “Zure izena:” > “user” > “Aukeratu pasahitza:” > “Us€r” > “Jarraitu”
- Instalazioa bukatu ondoren, “Instalazioa burututa” leihoa, sakatu > “Berrabiarazi orain”
- “Hasi saioa” leihoa > sartu “user”/“Us€r” saioa
- Ezabatu “Instalatu HARROBIX” abiarazlea
- Kudeatu abiarazle duala. Horretarako, erabili “grub customizer” tresna grafikoa; adibidez, sistema eragileen izenak alda ditzakezu edo berez abiaraztea nahi duzun sistema eragilea aukera dezakezu, itxaron-denbora ere konfigura daiteke bertan. Aldaketak egin ondoren, sakatu “Gorde” botoia
- Berrabiarazi eta ikus abiarazte duala agertzen dela
- “Hasi saioa” leihoa > sartu “user”/“Us€r” saioa
- Instalatu eguneratzeak, horretarako, sakatu > “eguneraketak” abiarazlea
- Instalatu “HARROBIX” bertsioaren aplikazio sorta; horretarako, sakatu > “instalazioak” abiarazlea
- **“HARROBIX_MKT”** bertsioan > instalatu “Davini Resolve” aplikazioa; horretarako, zabaldu “davinci” karpeta eta jarraitu “davinci instalatzeko pausoak”



“HARROBIX” 2022-2023 BERTSIOAK



- Abiarazle dualean “Windows” eta GNU/LINUX sistema eragileen orduek bat egiten ez badute (gerta liteke, “Windows” sistema eragilea 2 ordutan atzeratzea), modurik azkarrenean konpontzearren (ikus [honako hau](#)), egin honako bi eragiketa hauek:
 - “BIOS” > Ordua ondo jarri
 - “HARROBIX” sistema eragilearen bertsioan, zabaldu “user” saioa eta exekutatu honako komando hau terminala erabilita:
 - `sudo timedatectl set-local-rtc 1`